

ETXEBARRIA



BANDOA

Koronabirusaren zabaltzeari aurre egiteko prebentzio-neurriak

Koronabirusaren zabaltzeak sortutako osasun arazo globalari aurre egiteko, herritar guztiok jakin dezazuen, jarraian azaltzen diren neurrien berri ematera natorkizue:

- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren agindua betez, Etxebarriko **eskola** eta **haur-eskolaren** jarduera eten egingo da.
- **Udal bulegoa** ere publikoari itxita egongo da. Udalean izapiderik egin behar izatekotan, deitu mesedez Udaleko telefonora: **94.616.64.32**. Bitarteko telematikoak ere erabil ditzakezue: www.etxebarria.eus
- **Gimnasioa** itxi egingo da.
- **Eskolaz kanpoko jarduerak** zein bestelako **ikastaroak** (zumba, euskara, musika, etab.) eten egingo dira.
- **Liburutegia** publikoari itxita egongo da. Liburu, aldizkari edota bestelako argitalpenik behar izanez gero, deitu mesedez **94.616.93.42** zenbakira.
- **Jubilatuen lokala** itxita egongo da.

Neurri horiek guztiak **2020ko martxoaren 13an sartuko dira indarrean** eta horrelaxe mantenduko dira abisu berrira arte.

Halaber, herritar guztiei gogorarazten dizuet gaixotasunaren sintomak (sukarra, arnas-arazoak...) dituzuela uste duzuenok **Osakidetzako Osasun Kontseiluarekin** harremanetan jarri behar duzuela, telefono honetan: **900.20.30.50**

Horrekin batera, osasun agintariak esan bezala, sintomak dituzuenoi eskatzen dizuet ez zaitez tala kontaktuan egon adinekoekin edota gaixotasun kronikoak dituztenekin. **Leku publikoak eta jendetsuak** ekiditea ere eskatuko nizueke.

Era berean, beharrezko **higiene-neurriak** hartzea gomendatzen dizuet, hala nola eskuak sarri garbitzea, eztul egitean ahoa estaltzea edota erabili eta botatzeko zapiak erabiltzea.

Azkenik, herritarrei dei egiten zaie jarduera pribatuetan (akademikoak, kulturalak, kirolekoak edo aisialdikoak) antzeko neurriak hartzera, leku hauetan ere **pertsona multzo handiak saihesteko**.

Besterik gabe, aipatutako neurriak beteko dituzuelakoan, adeitasunez agurtzen zaituztet.

Etxebarrian, 2020ko martxoaren 13an.

Alkatea

Jesús Iriondo Lejardi